

Verónicaren bihotza

Verónica del Carmen Serranoren bihotza urriaren 13an eten zen. 28 urte besterik ez zituen. Verónicaren bihotza nekatuta gelditu zen. Adineko pertsona bat zainduz lan egiten zuen, barne langile. Ez zuen deskantsatzeko denborarik, ezta medikura joateko eskubiderik ere, paperik gabe bizi baitzen Euskal Herrian. Nikaragukoa zen, Somotokoa.

Zorigaitza baino ezbeharra izan da. Errua ez da patuarena. Ez da zorte kontua izan, bidegabekeria hutsa baizik. Hainbat elkartek, Munduko Emakumeak, Sorgin eta Anitzak, eta Mujeres con Voz-ek, besteak beste, heriotza honen hainbat ezaugarri mingarri salatu dituzte. Alde batetik, bere lan baldintzak: gizarte segurantzaren barik lan egiten zuen eta, barneko etxeko langile eta zainzaileen artean gertatu ohi den bezala, nagusiek ez zituzten, antza, haren deskantsu tarteak errespetatzen. Elkarteen ustez, gazte horren bihotz-arazoek nekearekin edota lanaldi luzeegiekin lotura izan zezaketen, eta gainera mediku arreta jaso balu, agian arazo hori garaiz diagnostikatu ziotketen. Baina gizarte-segurtzarik gabe lan egiteak beste arazo bat dakar: bere heriotza ez dela lan istripu bezala aintzat hartzen.

Atzeritartasun Legearekin ere lotura argia dago. Alegia, Verónicak Nikaragua utzi zuen (nazioarteko erakunde arabera, Ameriketako bigarren estatutirik txiroena; lehenengoa Haiti omen da) bere familiaren bizi baldintzak hobetzeko. Egun 9 urte dituen alaba bat utzi zuen Somoton. Amaren ardura ere bazuen, osasun txarra baitzuen. Atzeritartasun Legea dela eta, ekonomia ezkutuan lan egitea zen bere aukera bakarra; emakume etorkinentzat zaintza eta etxeko lanak dira enplegu irteeria bakarrak, eta horietan oso ohikoa da esplotazio baldintzetan aritzea.



June Fernández

KAZETARIA
@marikazetari

Kontua da Verónicaren heriotza oharkabean pasa zitekeela, baina ez zela hala izan. Getxoko Mujeres con Voz elkartera jo zuten gazte horren bi lagunek. Gorpua aberriratzeko 5.000 euro batu behar zituzten. Denetarik egin zuten: janariak sukaldatu eta saldu, ongintzako ekitaldiak antolatu, metroaren sarreran informazioa zabaldu...

Kontratua baldin baduzu ere (Euskal Autonomia Erkidegoko etxeko langileen herenak bakarrik du), nahiz eta astero 40 ordu beteko dituzula jarri, edozein momentuan zaintzen duzun pertsonak beharren bat izango du eta arreta eman beharko diozu. Baina paperik gabe baldin bazaude, zailagoa izango da zure eskubideak defendatzea, salaketa bat jartzeak kanporatua izatearen arriskua dakar. Gogoratu dezagun ere Espainiar Gobernuak paperik gabeko etorkinei osasun arreta ukatu diela.

Kontua da Verónicaren heriotza oharkabean pasa zitekeela, baina ez zela hala izan. Getxoko Mujeres con Voz elkartera jo zuten gazte horren bi lagunek. Gorpua aberriratzeko 5.000 euro batu behar zituzten. Denetarik egin zuten: janariak sukaldatu eta saldu, ongintzako ekitaldiak antolatu, metroaren sarreran informazioa zabaldu... Diru kopuru hori lortu zuten eta Mujeres con Voz eta beste hamaika etorkin eta emakume elkartek kasu hau ahoz aho zabaldu zuten.

“Verónica: zure heriotza gure borroka da”. Bihotz formarekin moztutako kartulina gorrietan horrelako leloak idatzi zituzten urriaren 31n elkarte eta lagunek Bilbon antolatutako omenaldian. Getxon beste bat ere egin zuten. Zaintzaileen prekaritatea eta Atzeritartasun Legeak dakarren eskubide urraketak salatu zituzten. Baina are gehiago, mikrofonoa zabalik utzi zuten nahi zuenak pare bat hitz esan zezan. Benetan hungigarria izan zen eta uste dut zeharo beharrezkoa dela halakoak egitea; matxismoaren, arrazakeriaren zein kapitalismo basatiaren biktimen dolu kolektiboak egitea. Bortizkeria zuzenaren ondorioz zein ezbehar bidegabeen ondorioz hildakoen izenak eta aurpegiak gogoratu beharko genituzke, eta inporta zaigula sentitu, heriotza bakoitza borrokatu behar dugula sentitu. ■